



**NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIKOTE
EGONKORREN ERREGISTRO BAKARRA**

OHIKO GALDERA-ERANTZUNAK

2022/02/25



Aurkibidea

1. Zer da bikote egonkorra?
2. Zer baldintza behar dira bikote egonkor gisa inskribatzeko?
3. Erregistroan bertan eratu dezakegu bikote egonkorra agiri publiko baten bidez?
4. Zer ondorio ditu Bikote Egonkorren Erregistro Bakarreko inskripzioak?
5. Izapideak badu kosturik?
6. Nora jo behar dut inskribatzeko eta izapidea egiteko?
7. Bikote Egonkorren Erregistroan zer data jasoko da bikotearen hasierakotzat?
8. Zer gertatzen da udaletan inskribatutako izatezko bikoteekin?
9. Nola azkentzen da bikote egonkorra?
10. Baja eman dakioke inskripzioari?
11. Erregulatu daiteke bikotearen araubide ekonomikoa?
12. Zer gertatzen da bizitokia Nafarroatik kanpora eramaten badugu?
13. Nork kontsulta ditzake Bikote Egonkorren Erregistro Bakarreko datuak?
14. Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean inskribatutako bikote egonkorrek ezkontideen parekoak dira zergen arloan?
15. Nola egiazta dezaket bikote egonkorra erregistroan inskribatuta dagoela?
16. Bikotekideetako bat hiltzen bada, bizirik dirauen pertsonak ba al du oinordetza eskubiderik?

1. Zer da bikote egonkorra?

Bi pertsona adinez nagusi edo adingabe emantzipatuak, bizitza afektiboa ezkontzaren antzeko erkidegoan dutenak, eta adierazten dutenak hala eratu nahi dutela agiri publiko gisa, [Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Bilduman](#) aurreikusitako ondorioak lortzeko.

2. Zer baldintza behar dira bikote egonkor gisa inskribatzeko?

Aurkeztea Bikote egonkorraren eraketaren agiri publikoa, bai eta ere Nafarroako Foru Komunitatean helbide berean erroldatuta egotearena (edo foru-izaera zibilari eustea, bizileku komuna Nafarroatik kanpokoa bada).

3. Erregistroan bertan eratu dezakegu bikote egonkorra agiri publiko baten bidez?

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariaren abuztuaren 2ko 22/2021 Foru Aginduaren 2. artikulua araberá, honako agiri publiko hauek inskriba daitezke Nafarroako Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean, notario-eskritura publikoaz gain:

- Administrazioek gaitutako langile publikoaren aurrean formalizatutako agiria. Lankidetzá-hitzarmena sinatuko da administrazio horiekin, Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarra sortzen duen apirilaren 14ko 27/2021 Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritako terminoetan.
- Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarraren arduradunaren aurrean formalizatutako agiria.

4. Zer ondorio ditu Bikote Egonkorren Erregistro Bakarreko inskripzioak?

Inskripzioa borondatezkoa da, Nafarroako Foru Berriaren arabera eraturako bikote egonkorraren existentziaren frogabide bat da, bikotea badela frogatzen eta deklaritzen duena.

Egiaztatzen du:

- Bikote egonkorra zein egunetan eratu zen agiri publikoan.
- Hala behar denean, bikote egonkorra osatu aurretik bikotekideek zenbat denbora daramaten elkarrekin bizitzen.
- Inskripzio data.
- Bikotea osatzen duten pertsonen identifikazioa.
- Harreman pertsonalak, familiarrak eta ondarekoak arautzen dituzten hitzarmenak badirela.
- Inskripzioen aldaketa, baja eta ezerezteen data, hala badagokio.

- Azkentze horren arrazoa, data eta azkentzearen inskribatze data, hala badagokio.
- Bikotea izan badela.

5. Erregistroan inskribatzea doakoa da?

Bai, Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean izena emateak ez du inolako kosturik.

6. Nora jo behar dut inskribatzeko eta izapidea egiteko?

Inskripzio-eskaerak Nafarroako Gobernuaren edozein erregistro eta arreta bulegotan edo 39/2010 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein lekutan aurkeztuko dira, aurrez aurre edo telematikoki.

Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrak helbide honetan du egoitza: Iruñean, Iratxeko monasterioaren kaleko 22.eko beheko solairuan. Helbide elektronikoa: registro.parejas.estables@navarra.es.

Erregistroaren egoitzako izapideak honela egin daitezke:

- Aurrez aurre, Erregistroaren egoitzan, **aldez aurreko hitzordua** eskatuta.
- Telematikoki, Nafarroako Atarian agertzen diren izapideen bidez: www.justicia.navarra.es

7. Bikote Egonkorren Erregistroan zer data jasoko da bikotearen hasierakotzat?

Bikote egonkorra zein egunetan eratu zen agiri publikoan. Nolanahi ere, adierazten ahalko da bikote egonkorra osatu aurretik bikotekideek zenbat denbora daramaten elkarrekin bizitzen.

8. Zer gertatzen da udaletan inskribatutako izatezko bikoteekin?

Udal-erregistroek dagoeneko ez dute baliorik.

2019ko urriaren 16tik aurrera, bikote egonkorrek bikote gisa eratzeko borondatea adierazi behar dute agiri publikoan, eta inskripzio-idazpenean jasotzen ahalko da bikote egonkorra osatu aurretik bikotekideek zenbat denbora daramaten elkarrekin bizitzen.

9. Nola azkentzen da bikote egonkorra?

Arrazoi hauengatik azkenduko da bikote egonkorra:

- a) Bikotekideetako baten heriotzagatik edo heriotza-deklarazioagatik.

b) Bikotekide baten ezkontzagarik eta bien arteko ezkontzagarik.

c) Bikotekideen adostasunagarik.

d) Bikotekide baten borondatez, borondate hori beste bikotekideari modu fedemailean jakinarazita.

e) Bizikidetzaren amaitzeagarik, bizi-erkidegoaren egiazko haustura gertatuta.

Bikote egonkorraren azkentzea jakinarazi beharko dio bikotekideetako edozeinek Erregistro Bakarrari, zeinetan dagoen inskribatuta, hari; bizikideetako edozeinek bestearen alde emandako adostasunak eta ahalordeak errebotatzea ekarriko du azkentzeak.

10. Baja eman dakioke inskripzioari?

Bikote egonkor batek inskripzioaren baja eska dezake bikotea amaitu gabe ere.

11. Erregulatu daitezke bikotearen araubide ekonomikoa?

Bikote egonkorra, berez, ez dago araubide ekonomiko baten mende. Kideek itunak egin ditzakete [Foru Berriaren 109 Legean](#) ezarritakoaren arabera.

Hitzarmenik ezean, ohiko etxebizitza erkidearen, gastu komunen eta horietarako ekarpenaren eta hirugarrenen aurreko erantzukizunaren arloan ezarritako araubidea Foru Berriaren 109 Legean ezarritakoa da (21/2019 Legea). Gainera, kontrako itunik egiten ez bada, 81. legean xedatutakoa aplikatuko da (lege hori familia-etxebizitzaren eta ostilamenduaren mugen gainekoa da).

Lege horretan aipatzen diren itunak inskribatzen ahalko dira.

12. Zer gertatzen da bizitokia Nafarroatik kanpora eramaten badugu?

Inskripzioak indarrean jarraitzen du, eta edozein unetan alda daitezke helbide berriaren datuak, Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean eskaera eginez.

13. Nork kontsulta ditzake Bikote Egonkorren Erregistro Bakarreko datuak?

Erregistroaren publikotasuna honako hauei dagokie soilik: interesdunei, haien kausadunei, interes legitimoa egiaztatzen duten hirugarrenei, epaitegi eta justiziako auzitegiei eta, beren eskumenak erabiltzeko, administrazio publikoetako organoei.

14. Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean inskribatutako bikote egonkorrak ezkontideen parekoak dira zergen arloan?

Orain arte, zerga ondorioetarako ezkontideekin parekatu ahal izateko, bikoteak Nafarroako Foru Ogasunaren Erregistro Fiskala delakoan inskribatu behar ziren.

2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, indargabetu egiten da Bikote Egonkorren Erregistro Fiskala. Data horretatik aurrera, nahikoa izanen da bikotea Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean edo aplikagarria zaien araudiaren arabera dagokion erregistroan inskribatzea, ezkontideen parekoak izateko PFEZari, ondarearen gaineko zergari, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergari, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari eta sozietateen gaineko zergari dagokienez.

Hala eta guztiz ere, 2022. urtean, aldi baterako, aipatutako Erregistro Fiskalean lehendik zeuden inskripzioek indarrean jarraituko dute, harik eta bikote egonkorra Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean edo aplikagarria zaien araudiaren arabera dagokion erregistroan inskribatu arte.”

15. Nola egiazta dezaket bikote egonkorra erregistroan inskribatuta dagoela?

Arduradunak emandako informazio-ohar soila eskatuta edo organo eskudunak emandako ziurtagiriaren bidez.

16. Bikotekideetako bat hiltzen bada, bizirik dirauen pertsonak ba al du oinordetza eskubiderik?

Bikote egonkorra azkentzen bada bikotekide baten heriotzagatik edo heriotza-deklarazioagatik, bizirik dirauen bikotekideak soilik izanen ditu oinordetzarako eskubideak elkarri edo bietako batek bestearen alde, batera edo bakoitzak bere aldetik, eman badizkio, betiere testamentu, oinordetza-itun edo "mortis causa" dohaintza bidez, edo Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioan onartzen diren gainerako xedatze-egintzak erabiliz.